LITERAKTUM

# LITERAKTUM

2025

Hitzen hiria

La ciudad de las palabras

**Azaroa** / Noviembre

10-23

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia **kultura**

www.literaktum.eus

# LITERAKTUM 25

## Niaren oihartzunak: bakardadea eta nortasuna aro globalean

## Ecos del yo: soledad e identidad en la era global

**PROGRAMA OROKORRA** / PROGRAMA GENERAL
6 - 27

**JARDUERA BEREZIAK** / ACTIVIDADES ESPECIALES
28 - 47

**ERAKUSKETAK** / EXPOSICIONES
48 - 55

**LITERAKTUM TXIKIA**
56 - 69

Literatura hiriaren muinean, elkarrizketarako gune eta topagune. Literaktumek, urtez urte, hitzaren bidez lotzen ditu iraganaren eta orainaren hariak, irakurle eta sortzaileen arteko zubiak eraikiz. Eztabaida garaikideei adi, diziplina anitz biltzen dituen jaialdia da, publiko zabalarentzat irekia, bizipenen eta ideien trukerako plaza. Hitzaren indarra ospatzeko jaialdia.

Ildo horri jarraituz, jaialdiak *Niaren oihartzunak: bakardadea eta nortasuna aro globalean* izango du izenburutzat. Aurtengo edizioak galdera pertsonal eta unibertsal bat jartzen du mahai gainean: nola definitzen dugu gure burua mundu global batean? Bakardadea gero eta lagun ohikoagoa bihurtu zaigu, eta nortasuna, sarri, galdua edo zatitua ageri zaigu. Literaturaren bidez, niaren oihartzunak entzun nahi ditugu, barrutik kanpora eta kanpotik barrura.

Aurtengo gaiaren harira hainbat egilek ekarriko dituzte euren unibertsoak: Juan José Millásek *Ese imbécil va a escribir una novela* eleberria izango du hizpide, Arantxa Urretabizkaiak bere buruaren jabe izan nahi eta ahal duten zaharren istorioak aurkeztuko ditu *Zahartzaroaren maparen bila* titulupean eta Carys Davies galestarrak, *Despejado* lanean jaso duen bakardadearen inguruko istorioa. Ignacio Martínez de Pisón, aldiz, belaunaldi kontakizuna edo memoria literario gisa irakur daitekeen *Ropa de casa* lanaz arituko da, eta Laura Chivitek, 2025eko Zilarrezko Euskadi Sariak, *El ataque de las cabras* liburuan, izeba eta iloba baten arteko loturak jarriko ditu agerian.

*Literaktumek aurkezten du* atalean askotariko gaiak bilduko dira: Juan Manuel de Pradak Parisko okupazioan girotutako lana, Javier Cercasek aita santuarekin eginiko bidaiaren inguruan idatzitakoa, Ignacio Peyrók sortutako Julio Iglesiasen biografia bitxia, edo Harkaitz Canok idatzi gabeko nobela baten inguruan landutako eleberria, besteak beste.

Erakusketek, antzerkiak, irakurraldi musikatuek, errezitaldiek, Kutxa Fundazioa Irun Literatura Sariek, literatur solasaldi eta ibilaldiak, afari literarioak eta haurrentzako prestatutako jarduerek osatzen dute programazioa.

Erakunde eta kultur eragile anitzez sarean ehundutako proposamena da, literatura hiri osora zabalduko duen jaialdia.

La literatura en la esencia de la ciudad, como espacio de diálogo y encuentro. Literaktum teje año tras año los hilos del pasado y del presente a través de la palabra, tendiendo puentes entre lectores y lectoras y creadores y creadoras. Un festival multidisciplinar de debate contemporáneo, abierto al gran público, una plaza para el intercambio de vivencias e ideas. Un festival para celebrar la fuerza de la palabra.

Siguiendo esta línea, el festival llevará por título *Ecos del Yo: soledad e identidad en la era global.* Esta edición pone sobre la mesa una pregunta personal y universal: ¿cómo nos definimos en un mundo global? La soledad es cada vez más frecuente y la personalidad, muchas veces, se nos muestra perdida o dividida. A través de la literatura queremos escuchar los ecos del Yo, de dentro hacia fuera y de fuera hacia dentro.

En torno a este eje temático distintos autores y autoras traerán sus universos a Donostia: Juan José Millás presentará *Ese imbécil va a escribir una novela,* Arantxa Urretabizkaia hablará de quienes en la vejez quieren trazar su propio mapa vital. *Zahartzaroaren maparen bila* es el título de su trabajo. La galesa Carys Davies revelará los secretos de *Despejado*, una historia de soledad y relación entre dos hombres. Ignacio Martínez de Pisón evocará la memoria generacional a través de *Ropa de casa*, mientras que Laura Chivite, ganadora del Premio Euskadi de Plata 2025, presentará *El ataque de las cabras*, una historia sobre los lazos que unen a una mujer y su sobrina.

En la sección *Literaktum presenta,* por su parte, se darán cita temas muy diversos: la novela de Juan Manuel de Prada ambientada en la ocupación de París, el relato de Javier Cercas sobre su viaje con el Papa, la curiosa biografía de Julio Iglesias escrita por Ignacio Peyró, o la reflexión de Harkaitz Cano en torno a las críticas a una novela no escrita.

Exposiciones, teatro, lecturas musicalizadas, recitales, los Premios Irun de Literatura Fundación Kutxa, tertulias, un paseo y una cena literarias y las actividades para el público infantil completan la programación.

Una propuesta tejida en colaboración con una amplia red de instituciones y agentes culturales, un programa que extenderá la literatura a toda la ciudad.





# **Programa orokorra**
# Programa general

10

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

***Mil ojos esconde la noche. Cárcel de tinieblas***

## *Juan Manuel de Prada*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Álvaro Bermejo***

OKENDO K.E.
**19:00 CAS**

*Gonbidapenarekin / Con invitación*

*Gonbidapenak jardueraren egunean bertan 10:00etatik aurrera eskuratu ahal izango dira www.donostiakultura.eus-en eta kultur etxeetan (Loiolan salbu). 2 gonbidapen gehienez pertsona bakoitzeko.*

*Las invitaciones se podrán adquirir a partir de las 10:00 del mismo día de la actividad en www.donostiakultura.eus y en las casas de cultura (excepto en Loiola). Máximo 2 invitaciones por persona.*

Parisko okupazio garaian kokatzen den *Mil ojos esconde la noche. Cárcel de tinieblas* eleberrian, Juan Manuel de Pradak (Barakaldo, 1970) Fernando Navales antiheroiaren istorioa jarraitzen du. Ikerketa sakonaren emaitza, erbesteratutako artista espainiarren komunitatearen bizipenetan murgilduta, kontakizunak pikareskatik tragediara egiten du jauzi, gizakiaren alde ilunak eta XX. mendeko pasarte erabakigarrienetako baten indarra azaleratuz.

En *Mil ojos esconde la noche. Cárcel de tinieblas,* ambientada en el París ocupado, Juan Manuel de Prada (Barakaldo, 1970) continúa la historia del antihéroe Fernando Navales. Entre la comunidad de artistas españoles exiliados, el relato evoluciona de lo picaresco a lo trágico, revelando las sombras de la condición humana y la fuerza de uno de los episodios más decisivos del siglo XX.



10

**NIAREN OIHARTZUNAK**
ECOS DEL YO

***Zahartzaroaren maparen bila***

## *Arantxa Urretabizkaia*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Ana Urkiza***

ERNEST LLUCH K.E.
**19:00 EU**



© P. Elzaburu

Idazlearen hitzetan zahartzaroaz doa liburu hau, batez ere muga guztiak kontuan izanda ere, bere buruaren jabe izan nahi eta ahal duten zaharrei buruz.

Erdi Aroko mapetan, ezezagunak ziren lurraldeak seinalatzeko, *hic sunt dracones* jartzen zuten, "hemen herensugeak daude". "Bada, belaunaldi oso bat abiatu da herensugez jositako lurralde ezezagun horietan, maparik gabe, baina iparrorratz bat eskuan. Autonomia da iparreko izarra, zaharrok pertsona orok dituen eskubideen jabe garelako".

En palabras de la autora, este libro trata sobre la vejez, y en especial sobre aquellas personas mayores que, a pesar de las limitaciones, quieren y pueden seguir siendo dueñas de sí mismas.

En los mapas medievales, para señalar los territorios desconocidos, se escribía *hic sunt dracones*, "aquí hay dragones". "Pues bien, toda una generación se ha adentrado en esos territorios desconocidos, poblados de dragones, sin mapa pero con una brújula en la mano. La estrella del norte es la autonomía, porque las personas mayores seguimos teniendo los mismos derechos que cualquier otra persona".

**11**

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

***Crisálida***

## *Fernando Navarro*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Teresa Flaño***

LIBRERÍA ZUBIETA-TROA LIBURU-DENDA
Errege – Erregina Katolikoen kalea, 3
Calle de los Reyes Católicos, 3
**19:00 CAS**



© Alfredo Arias

*Malaventura* kontakizun-liburuaren arrakastaren ondoren, Fernando Navarrok (Granada, 1980), zinema gidoilari gisa ezagunagoa, *Crisálida* du lehen eleberria. Folk izugarriaren eta gotikoaren artean, Nada izeneko neskatoaren ahotsa baliatzen du istorioa kontatzeko, haurtzaroan bizi izandako indarkeria eta fanatismoaren ondoren gaixoetxe batean giltzapetuta dagoen neskatoa.

Egilearen prosa poetiko eta sentsorialak edertasunaren eta izugarrikeriaren arteko muga lauso batera darama irakurlea, xalogabetasunaren galeraren eta erresistentzia intimoaren istorio batean.

Tras el éxito del libro de relatos *Malaventura*, Fernando Navarro (Granada, 1980), más conocido por su faceta de guionista de cine, publica *Crisálida*, su primera novela.

Entre el folk horror y el gótico, la historia se construye sobre la voz de Nada, una niña encerrada en un sanatorio tras la violencia y el fanatismo vividos en su infancia.

La prosa poética y sensorial del autor nos conduce hacia una frontera difusa entre la belleza y el horror, en una historia de pérdida de inocencia y resistencia íntima.

Laguntzailea / Colabora
***Librería Zubieta–TROA liburu-denda***



**11**

**NIAREN OIHARTZUNAK**
ECOS DEL YO

***Sakelako bihotzak***

## *Julen Apella*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Aritz Gorrotxategi***

ELKAR ARETOA
Fermín Calbetón, 21
**19:00 EU**




© Amaia Uzuriaga

Augustin Zubikarai saria lortu ondoren idatzi du Julen Apellak (Berriz, 1998) *Sakelako bihotzak* eleberria. Jokin eta Felix lagunen arteko harremana da ardatza, unibertsitateko azken urteetan dabiltzan bi gazte, aski desberdinak, izaeraz eta jatorriaz. Bien ibilbideak, harremanak eta gorabeherak jarraituko ditugu, beren bizitzak markatuko dituzten hilabete batzuetan. Apellak *Postal bat desertuan* (Balea Zuria) olerki liburua plazaratu zuen iaz, Donostia Kultura Poesia Lehiaketa saria irabazi ondoren.

Tras obtener el premio Augustin Zubikarai, Julen Apella (Berriz, 1998) ha escrito la novela *Sakelako bihotzak*. El eje de la obra es la relación entre dos amigos, Jokin y Felix, dos jóvenes muy distintos en carácter y origen que cursan los últimos años de universidad. Seguiremos sus trayectorias, sus relaciones y avatares a lo largo de unos meses que marcarán sus vidas. El pasado año Apella publicó el libro de poemas *Postal bat desertuan* (Balea Zuria), tras haber ganado el premio Donostia Kultura Poesia Lehiaketa.

Laguntzaileak / Colaboran
***Elkar, Ilazki Euskaltegia***

**11**

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

***Dos tardes con Jane Austen***

## *Espido Freire*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Eduardo Yáñez***

ERNEST LLUCH K.E.
**19:00 CAS**



Jane Austeni buruzko hirugarren entsegua du Espido Freirek (Bilbo, 1974), haren jaiotzaren 250. urteurrenean. *Dos tardes con Jane Austen* irakurketaren plazerari eta literaturaren botere eraldatzaileari buruzko hausnarketa da. Espido Freirek Austenen bizitza eta garaia berrirakurtzen ditu ironia finez eta umore ukituez, irakurlea bere pertsonaien eta ideien freskotasunera hurbilduz. Saiakeraren eta narrazioaren arteko erdibidean, obrak klasiko baten unibertsoan murgiltzera gonbidatzen du erreparorik gabe.

Tercer ensayo de Espido Freire (Bilbao, 1974) sobre la figura de Jane Austen en el 250 aniversario de su nacimiento. *Dos tardes con Jane Austen* es una reflexión sobre el placer de la lectura y el poder transformador de la literatura. Espido Freire relee la vida y la época de la autora con fina ironía y toques de humor, acercando a lectores y lectoras a la frescura de sus personajes e ideas. A medio camino entre el ensayo y la narración, la obra invita a adentrarse sin reservas en el universo de una escritora clásica.

**12**

**NIAREN OIHARTZUNAK**
ECOS DEL YO

***Ese imbécil va a escribir una novela***

## *Juan José Millás*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Nerea Kortabitarte***

OKENDO K.E.
**19:00 CAS**

*Gonbidapenarekin / Con invitación*

*Gonbidapenak jardueraren bezperako 16:00etatik aurrera eskuratu ahal izango dira www.donostiakultura.eus-en eta kultur etxeetan (Loiolan salbu). 2 gonbidapen gehienez pertsona bakoitzeko.*

*Las invitaciones se podrán adquirir a partir de las 16:00 horas de la víspera de la actividad en www.donostiakultura.eus y en las casas de cultura (excepto en Loiola). Máximo 2 invitaciones por persona.*



© JEOSM

Autofikzioa, umorea eta memoria uztartuz, mundu erreala eta imajinatuaren artean bidaiarazten gaitu Juan José Millásek (Valentzia, 1946) *Ese imbécil va a escribir una novela* lanean. Protagonistak, kasualitatez egilearen izena daraman kazetari beteranoak, azken erreportaje perfektua idazteko mandatua jaso du, eta haurtzaroko oroitzapen nahasi batek bere bizitza osoa berrikustera eramango du. Identitatearen eta fikzioaren mugez diharduen eleberri honek thriller existentzial baten itxura hartzen du, literaturaren bidez bizitzako esperientzia ordenatu eta ulertzeko gaitasunari buruzko hausnarketa bihurtuz.

En *Ese imbécil va a escribir una novela*, Juan José Millás (Valencia, 1946) nos hace viajar entre lo real y lo imaginado, mezclando autoficción, humor y memoria. El protagonista, un veterano periodista con el que comparte nombre, recibe el encargo de escribir su último reportaje, lo que le lleva a revisitar un episodio borroso de su infancia. Con tintes de thriller existencial, esta novela se adentra en temas como la identidad y las fronteras entre realidad y ficción, convirtiéndose en una reflexión sobre el poder de la literatura para dar forma y sentido a la experiencia vivida.

**13**

**NIAREN OIHARTZUNAK**
ECOS DEL YO

***Te siguen***

## *Belén Gopegui*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Juan G. Andrés***

ERNEST LLUCH K.E.
**19:00 CAS**



Teknologiaren eta kontrol sozialaren garaian, *Te siguen* eleberriak, lagun talde baten istorioa baliatuz, pribatutasunaren galera eta jagoletza digitalaren aurkako erresistentzia aztertzen ditu. Konspirazioaren eta eguneroko bizitzaren artean, tentsio politiko eta existentziala eraikitzen du narrazioak, pribatutasunaren benetako balioaz hausnartzera bideratuz.

En la era de la tecnología y el control social, *Te siguen* explora, a través de la historia de un grupo de amigos, la pérdida de la privacidad y la resistencia frente a la vigilancia digital. Entre la conspiración y la vida cotidiana, la narración construye una tensión política y existencial que nos lleva a reflexionar sobre el verdadero valor de su intimidad.

**14**

**NIAREN OIHARTZUNAK**
ECOS DEL YO

***Dena zulo bera zen***

## *Eider Rodriguez*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Iñigo Aranbarri***

ERNEST LLUCH K.E.
**19:00 EU**



*© Ignacio Pérez*

Zerua argi egon arren, arnasa hartzea hain erraza ez den paisaia bat hedatzen da liburu honetan. Edertasunaren eta heriotzaren igurtzi amaigabean, bakea ez, egia aitzurtu nahia da protagonista.

Hendaian, Bordelen, Donostian, Irunen, Koh Pha Ngan-en, Hondarribian, Errenterian; elkar besarkatuta kabitzeko moduko zulo txiki batekin aski zatekeen. Gauza guztien azken aldi bat, eta ondorioz lehena, Eider Rodriguezen (Errenteria, 1977) bosgarren ipuin liburuan.

Aunque el cielo esté despejado, en este libro se despliega un paisaje en el que respirar no resulta tan sencillo. En el roce interminable entre la belleza y la muerte, la protagonista no es la paz, sino el deseo de cavar en busca de la verdad.

En Hendaia, Burdeos, Donostia Irun, Koh Pha Ngan, Hondarribia, Errenteria; habría bastado con un pequeño agujero en el que cupieran abrazados. La última vez de todas las cosas, y por lo tanto la primera, en el quinto libro de relatos de Eider Rodriguez (Renteria, 1977).

14

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

***El español que enamoró al mundo***

## *Ignacio Peyró*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Mitxel Ezquiaga***

TOMASENE K.E.
**19:00 CAS**



© Daniel Ibáñez

Ignacio Peyró (Madril, 1980) herri-kulturan murgildu da lehen aldiz, Julio Iglesiasen biografia idatzi eta era berean Espainiaren mende erdiaren eraldaketa sozialaren argazkia eginez.

Literaturaren eta kazetaritzaren arteko bidean, Peyrók irudi glamuroso bezain kontraesankorraren erretratu argi eta ironikoa egiten du, Julio Iglesiasen ibilbide artistiko eta pertsonalari begirada zorrotz bezain hurbilarekin helduz.

Ignacio Peyró (Madrid, 1980) se adentra por primera vez en la cultura popular con una biografía de Julio Iglesias que retrata también medio siglo de transformación social en España.

Entre lo literario y lo periodístico, Peyró traza un retrato lúcido e irónico de una figura tan glamurosa como contradictoria, abordando su trayectoria artística y personal con una mirada tan cercana como afilada.





15

**NIAREN OIHARTZUNAK**
ECOS DEL YO

***Despejado***

## *Carys Davies*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Leire Palacios***

OKENDO K.E.
**19:00 EN + EU + CAS**

Aldibereko itzulpena euskara eta gaztelaniara
Traducción simultánea a euskara y castellano



XIX. mendeko Eskoziako kanporatzeen testuinguruan, *Despejado*k bi gizon oso desberdinen topaketa kontatzen du: Ivar, Shetland iparraldeko uharte urrun batean bakarrik bizi den artzaina, eta John Ferguson, presbitero gaztea, bertako lurjabeak bidalia hura etxetik botatzeko.

Carys Davies galestarrak estilo zainduz eta xehetasun historiko zorrotzez idatzitako eleberri honetan, natura basatiaren edertasuna eta giza harremanen konplexutasuna gurutzatzen ditu.

Gaztelaniarako itzulpena Gabriel Insaustirena da.

Ambientada en las expulsiones de las Tierras Altas escocesas del siglo XIX, *Despejado* narra el encuentro entre dos hombres muy distintos: Ivar, pastor que vive solo en una remota isla del norte de las Shetland, y John Ferguson, joven presbítero enviado por el terrateniente para desalojarlo.

La galesa Carys Davies combina una prosa cuidada con minucioso rigor histórico para entrelazar la belleza salvaje de la naturaleza y la complejidad de las relaciones humanas.

Gabriel Insausti ha traducido esta obra al castellano.

## 17

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

***El plan maestro***

## *Javier Sierra*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Juan Carlos Etxeberria***

ERNEST LLUCH K.E.
**19:00 CAS**



1990ean Prado Museoan izandako topaketa batek betiko aldatu zuen Javier Sierra (Teruel, 1971), Europako misterio eleberri idazle ezagunenetako bat. Rafaelen *La perla* lanaren aurrean, ezezagun bat hurbildu eta koadroa nola behatu iradokitzen dio: pertsonaiek begiratzen dutenari erreparatu behar zaio. Eleberriak gure espeziearen historia kontatzen du artearen bidez eta irakurketa berri bat egitera bideratzen gaitu: artelanak ez dira edertasuna bakarrik, beste mundu batzuekiko leiho sekretuak baizik.

Un encuentro en el Museo del Prado en 1990 cambió para siempre a Javier Sierra (Teruel, 1971), uno de los autores de misterio más populares de Europa. Frente a *La perla*, de Rafael, un extraño se le acerca y le sugiere cómo observar el cuadro: hay que fijarse en lo que los personajes miran. La novela relata la historia de nuestra especie a través del arte y convoca a una nueva lectura: las obras de arte no son solo belleza, sino ventanas secretas hacia otros mundos.

## 18

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

***El loco de Dios en el fin del mundo***

## *Javier Cercas*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Olga Grande***

OKENDO K.E.
**19:00 CAS**

*Gonbidapenarekin / Con invitación*

*Gonbidapenak jardueraren bezperako 16:00etatik aurrera eskuratu ahal izango dira www.donostiakultura.eus-en eta kultur etxeetan (Loiolan salbu). 2 gonbidapen gehienez pertsona bakoitzeko.*

*Las invitaciones se podrán adquirir a partir de las 16:00 horas de la víspera de la actividad en www.donostiakultura.eus y en las casas de cultura (excepto en Loiola). Máximo 2 invitaciones por persona.*



© Raül Cercas

*El loco de Dios en el fin del mundo*, Vatikanoak Javier Cercasi (Ibahernando, Cáceres, 1962) egiten dion ezohiko proposamenetik abiatzen da: Franciso aita santuari Mongoliara bidaian laguntzea. Ateoa, laizista eta antiklerikala, Cercasek erronka onartzen du, aita santuari, bere ama hil ondoren aitarekin berriro elkartuko den galdetu eta erantzuna eramateko helburuarekin.

Emaitza testu hibrido bat da, kronika, biografia, saiakera eta autobiografia nahasten dituena. Egileak, tonu ironiko eta gogoetatsuan, agian inoiz iritsiko ez diren erantzunak bilatzeari ekiten dio.

*El loco de Dios en el fin del mundo* parte de la insólita propuesta que hace el Vaticano al autor para acompañar al papa Francisco en su viaje a Mongolia. Un reto que Javier Cercas (Ibahernando, Cáceres, 1962), ateo, laicista y anticlerical, acepta, para preguntar al papa si su madre volverá a encontrarse con su padre después de morir y llevarle a ella la respuesta.

El resultado es un texto híbrido que combina crónica, biografía, ensayo y autobiografía en el que, con tono irónico y reflexivo, el autor se lanza a buscar respuestas que quizá nunca lleguen.

19

**NIAREN OIHARTZUNAK**
ECOS DEL YO

***El buen mal***

## ***Samanta Schweblin***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Ylenia Benito***

ERNEST LLUCH K.E.
**19:00 CAS**



Azken hamarkadetako ipuin-idazle argentinar onenetakotzat jotzen den Samanta Schweblinek (Buenos Aires, 1978) gertakari arrotz edo bitxiak ustekabean egunerokotasunen nola murgitzen diren arakatzen du *El buen mal* azken lanean. Pertsonaia zaurgarri eta gizatiarrek tragedia baten hurbiltasunaren aurrean harrapatuta geratzen dira, minari, erruari edo samurtasunari aurre eginez. Prosa zehatz eta tentsioz beterikoaz, egileak beldur sakonenak agerian uzten dituzten kontakizun zirraragarriak eraikitzen ditu.

Descrita como una de las mejores cuentistas argentinas de las últimas décadas, Samanta Schweblin (Buenos Aires, 1978) explora en *El buen mal* cómo lo extraño irrumpe en lo cotidiano. Sus personajes, vulnerables y humanos, quedan atrapados ante la inminencia de una tragedia, enfrentándose al dolor, la culpa o la ternura. Con prosa precisa y cargada de tensión, la autora construye relatos inquietantes donde los miedos más íntimos se hacen visibles.

19

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

***Silueta***

## ***Harkaitz Cano***

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Aintzane Usandizaga***

OKENDO K.E.
**19:00 EU**



© *Sushi Maky*

Eraiki daiteke eleberri bat hura irakurri gabe, egin zaizkion kritika on eta txar, sutsu edo suntsitzaileen hariari segituz? Existitzen ez den liburu bati egindako hogeita hamaika kritika eta iruzkin biltzen ditu Harkaitz Canoren (Lasarte-Oria, 1975) *Silueta*k. Horrela, iritzi sorta kaleidoskopiko eta kontrajarri horiek denak irakurrita, irakurlea izango da nobela osatzen joan beharko duena, kritikari batek irristatutako *spoiler* ttipiari hurrengoaren angelua gehituz, jolas literarioan ezinbestean inplikatuz.

¿Se puede construir una novela sin leerla, siguiendo el hilo de las críticas buenas y malas, ardientes o destructivas que se le han hecho? *Silueta*, último trabajo de Harkaitz Cano (Lasarte-Oria, 1975), recoge treinta y un críticas y comentarios a un libro que no existe. Así, leyendo toda esa serie de opiniones caleidoscópicas y contrapuestas, será el lector o lectora quien tenga que ir completando la novela, añadiendo al pequeño *spoiler* deslizado por un crítico el ángulo de la siguiente, implicándose inevitablemente en el juego literario.

**20**

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU**
LITERAKTUM PRESENTA

***Agur, puxika, agur!***

## *Agata Loth-Ignaciuk*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Mónica Gracia***

HAUR LIBURUTEGI NAGUSIA
**12:00 EN + EU + CAS**



Haur literaturako *Agur, puxika agur*! ipuinean, Agata Loth-Ignaciukek (Varsovia, 1973) puxika hori bati jarraitzera gonbidatzen ditu irakurleak, ilustrazioak aztertzera eta ingurunea aurkitzera eramango dituena. Irakurketa bera, aurkikuntzen jolas bihurtzen da. Agata Loth-Ignaciuken liburuak nazioartean sarituak eta goraipatuak izan dira.

En el cuento de literatura infantil *¡Chao, chao, globito!,* Agata Loth-Ignaciuk (Varsovia, 1973) invita a lectores y lectoras a seguir a un globo amarillo que les llevará a estudiar las ilustraciones y descubrir el entorno, convirtiendo la propia lectura en un juego de descubrimientos.

Las obras de Agata Loth-Ignaciuk han recibido numerosos premios y menciones internacionales.

Antolatzaileak / Organizan
***Biblioteka Narodowa, Mestiza Asociación artística socio-cultural, Donostia Kultura***

**20**

**NIAREN OIHARTZUNAK**
ECOS DEL YO

***El ataque de las cabras***

## *Laura Chivite*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Yolanda Mendiola***

KUTXA FUNDAZIOA KLUBA
**17:30 CAS**



*© Isabel Ezkieta*

*El ataque de las cabras*, estreinako nobela du Laura Chivitek (Iruñea, 1995). Fabula eta eguneroko bizitza uztartzen ditu, izeba eta ilobaren arteko harremanari buruzko istorioa garatzeko. Ikuspegi *queer* batetik egiten du, ahuntz antropomorfo eta zinemagile batek gidatuta. Umorea eta elementu fantastikoak erabiliz, dolua, depresioa eta familia-zatiketak bezalako gai gordinak lantzen ditu, irudimenari eta metaforei lekua eginez, errukiz eta ironiaren bidez errealitateaz hitz egiteko.

*El ataque de las cabras* eleberriak 2025eko Zilarrezko Euskadi saria jaso du.

*El ataque de las cabras* es la primera novela de Laura Chivite (Pamplona, 1995). Combina la fábula con la vida cotidiana para desarrollar una historia sobre la relación entre tía y sobrina. Lo hace desde una mirada *queer*, guiada por una cabra antropomorfa y cineasta. Con humor y elementos fantásticos, aborda temas crudos como el duelo, la depresión y las divisiones familiares, dando cabida a la imaginación y a las metáforas para hablar de la realidad a base de compasión e ironía.

*El ataque de las cabras* ha recibido el premio Euskadi de Plata 2025.

Antolatzaileak / Organizan
***Kutxa Fundazioa, Donostia Kultura***

## 20

**NIAREN OIHARTZUNAK**
ECOS DEL YO

***Ropa de casa***

## *Ignacio Martínez de Pisón*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Ines Azpiazu***

SAN TELMO MUSEOA
**19:00 CAS**



© Ivan Giménez- Seix Barral

Belaunaldi kontakizun modura zein memoria literarioak bezala irakur daiteke *Ropa de casa.* Martínez de Pisónek (Zaragoza, 1960), hirurogeigarren hamarkadako Logroñoko umea, hirurogehita hamargarren hamarkadako Zaragozako mutikoa eta laurogeigarren hamarkadako Bartzelonako eleberrigile ikaslea, familiako istoriak dakarzki gogora. Baita, idazle baten prestakuntza eta Espainiako gizarteak diktadura batetik Europan finkatutako eta integratutako demokrazia batera igarotzean bizi izandako aldaketa garaia ere. Istoriak kontatzeko dohaiaz jantzia, bere izana kontatzen du eta, batez ere, garai bat.

*Ropa de casa* se puede leer como un relato generacional y unas memorias literarias. En el libro, Ignacio Martínez de Pisón (Zaragoza, 1960), niño en el Logroño de los sesenta, muchacho en la Zaragoza de los setenta y aprendiz de novelista en la Barcelona de los ochenta, no solo rememora historias familiares; también asistimos a la formación de un escritor y a una época de cambios vividos por la sociedad española en su paso de una dictadura a una democracia consolidada e integrada en Europa. Dotado del don de contar historias, se cuenta él, y sobre todo, cuenta una época.

## 21

**NIAREN OIHARTZUNAK**
ECOS DEL YO

***Azken batean***

## *Lourdes Oñederra*

Elkarrizketatzailea / Entrevista
***Itziar Ugarte***

SAN JERÓNIMO ARETOA
**19:00 EU**



Elisa eta Elixabete ama-alabak dira, eta euren arteko harremana zaila da, iraganeko oroitzapen mingarriek eta familiako sekretu baten itzalak markatua. Euskadi eta Amerikaren arteko bidaia batean, historiak lotura ikusezinak ehuntzen ditu, izan zenaren eta inoiz izango ez denaren artean harrapatutako bizitza markatzen dutenak.

Lourdes Oñederrak (Donostia, 1958) begirada sakona eskaintzen die indarkeriaren zauri oraindik irekiei, baina baita oroimenari, familiari eta Euskal Herriko historia hurbilean emakumeak izan duen paperari ere.

Elisa y Elixabete son madre e hija, y entre recuerdos y heridas del pasado mantienen una relación compleja, marcada además por la sombra de un doloroso secreto familiar. En un viaje entre Euskadi y América, la historia teje lazos invisibles que marcan una vida atrapada entre lo que fue y lo que nunca será.

Lourdes Oñederra (San Sebastián, 1958) ofrece una mirada profunda a las heridas aún abiertas de la violencia, pero también a la memoria, la familia y al papel que han tenido las mujeres en la historia reciente del País Vasco.

| EGUNA DÍA | JARDUERA ACTIVIDAD | HIZKUNTZA IDIOMA | LEKUA LUGAR | ORDUA HORA | GONBID. INVIT. |
|---|---|---|---|---|---|
| 10 | ***Mil ojos esconde la noche. Cárcel de tinieblas*** *Juan Manuel de Prada* | **CAS** | OKENDO K.E. | **19:00** | Bai/Si |
| 10 | ***Zahartzaroaren maparen bila*** *Arantxa Urretabizkaia* | **EU** | E. LLUCH K.E. | **19:00** | Ez/No |
| 11 | ***Crisálida*** *Fernando Navarro* | **CAS** | ZUBIETA-TROA LIBURU-DENDA | **19:00** | Ez/No |
| 11 | ***Sakelako bihotzak*** *Julen Apella* | **EU** | ELKAR ARETOA | **19:00** | Ez/No |
| 11 | ***Dos tardes con Jane Austen*** *Espido Freire* | **CAS** | E. LLUCH K.E. | **19:00** | Ez/No |
| 12 | ***Ese imbécil va a escribir una novela*** *Juan José Millás* | **CAS** | OKENDO K.E. | **19:00** | Bai/Si |
| 13 | ***Te siguen*** *Belén Gopegui* | **CAS** | E. LLUCH K.E. | **19:00** | Ez/No |
| 14 | ***Dena zulo bera zen*** *Eider Rodriguez* | **EU** | E. LLUCH K.E. | **19:00** | Ez/No |
| 14 | ***El español que enamoró al mundo*** *Ignacio Peyró* | **CAS** | TOMASENE K.E. | **19:00** | Ez/No |

| EGUNA DÍA | JARDUERA ACTIVIDAD | HIZKUNTZA IDIOMA | LEKUA LUGAR | ORDUA HORA | GONBID. INVIT. |
|---|---|---|---|---|---|
| 15 | ***Despejado*** *Carys Davies* | **EN+EU+CAS** | OKENDO K.E. | **19:00** | Ez/No |
| 17 | ***El plan maestro*** *Javier Sierra* | **CAS** | E. LLUCH K.E. | **19:00** | Ez/No |
| 18 | ***El loco de Dios en el fin del mundo*** *Javier Cercas* | **CAS** | OKENDO K.E. | **19:00** | Bai/Si |
| 19 | ***El buen mal*** *Samanta Schweblin* | **CAS** | E. LLUCH K.E. | **19:00** | Ez/No |
| 19 | ***Silueta*** *Harkaitz Cano* | **EU** | OKENDO K.E. | **19:00** | Ez/No |
| 20 | ***Agur, puxika, agur!*** *Agata Loth-Ignaciuk* | **EN+EU+CAS** | HAUR LIBURUTEGI NAGUSIA | **12:00** | Ez/No |
| 20 | ***El ataque de las cabras*** *Laura Chivite* | **CAS** | KUTXA FUNDAZIOA KLUBA | **17:30** | Ez/No |
| 20 | ***Ropa de casa*** *Ignacio Martínez de Pisón* | **CAS** | SAN TELMO MUSEOA | **19:00** | Ez/No |
| 21 | ***Azken batean*** *Lourdes Oñederra* | **EU** | SAN JERÓNIMO ARETOA | **19:00** | Ez/No |



# **Jarduera bereziak**
# Actividades especiales

# BISITA GIDATUA
VISITA GUIADA




**13**

## *Liburuaren arbola* erakusketa

Gidaria / De la mano de
***Gorka Arrese***

OKENDO K.E.
**18:30 EU**

Gorka Arrese, idazle eta kazetariak, berak komisariatutako *Liburuaren arbola* erakusketara bisita gidatua zuzenduko du.

El escritor y periodista Gorka Arrese, realizará una visita guiada a la exposición *Liburuaren arbola* que él mismo ha comisariado.





# ERREZITALDIA
RECITAL



**13**

## *Ez da inor, denak daudenean*
## *No hay nadie, cuando están todos*

INTXAURRONDO K.E.
**19:00 CAS**

Plus 55eko narratzaile eta Intxaurrondo K.E.ko Olerkariaren txokoan parte hartzen duten lagunek aurtengo Literaktum ardazten duen *Niaren oihartzunak: bakardadea eta nortasuna aro globalean* gaiaren inguruan, aritzen diren testu adierazgarriak aurkeztuko dituzte aurrez-aurre eta zuzeneko musikaz lagunduta.

Hausnarketa modu gertu eta intimo batean pizteko gonbitea.

Las personas participantes en los grupos de Narradores y del Rincón de la poesía de Intxaurrondo de Plus 55 presentarán una serie de textos seleccionados en torno a la temática de esta edición de Literaktum, *Ecos del Yo: soledad e identidad en la era global*, acompañados de música en directo.

Un espacio íntimo y cercano para estimular la reflexión.

# BERTSO SAIO LITERARIOA



14

## *Pleibak*

LOIOLA K.E.
**19:00 EU**

Miren Amurizaren *Pleibak* nobelaren pasarte hautatuen irakurketa musikatua eta bat-bateko bertsoaldiak tartekatuko dira, bai testuetan oinarritutako gaiak landuz, baita aktualitateko gaiei buruz hausnartuz.

Ane Labaka eta Oihana Iguaran bertsolari lanetan, eta Miren Amuriza gai jartzaile, Miceren musikaz lagunduta. Literatura, musika eta bertsoen arteko elkarrizketa berezia.

Basado en la novela de Miren Amuriza, *Pleibak*, este espectáculo alterna lecturas musicadas de algunos pasajes de la obra con improvisados bertsos, reflexionando sobre los temas que trata Amuriza así como sobre la actualidad.

Acompañadas por la música de Mice, las bertsolaris Ane labaka y Oihana Iguaran cantarán sobre los temas que proponga Miren Amuriza. Un diálogo especial entre literatura, música y bertsos.



# IRRATI ANTZERKIA RADIOTEATRO



15

## *El Principito, Antoine de Saint-Exupéry*

***Inko Martín***

TOMASENE K.E.
**19:00 CAS**

Antoine de Saint-Exupéryren jaiotzaren 125. urteurrena dela eta, *El Principito* bere lanaren irrati-antzerkirako, zuzeneko soinu-fikziorako egokitzapena, horretarako ahotsak, musika eta zuzeneko soinu-efektuak erabiliz.

Con motivo del 125 aniversario del nacimiento de Antoine de Saint-Exupéry, adaptación de su obra *El Principito* al radioteatro, a la ficción sonora en vivo, utilizando para ello voces, música y efectos sonoros en directo.

Gidoilari eta zuzendaria / Guion y dirección
***Inko Martín***

Soinu teknikariak / Técnicos de sonido
***Mikel Cerezo, Eneko Yaben***

Aktorea / Actriz
***Saioa Royo***

# ANTZERKIA
TEATRO



**15**

## *La doble vida de Virginia Woolf*

***Algalope***

IMANOL LARZABAL (LUGARITZ)
**19:30 CAS**

12 €
www.donostiakultura.eus/sarrerak

Virginia Woolf, XX. mendeko modernismo abangoardistaren egile ezagunak, eta Carl Gustav Jung, psikiatra suitzarrak, Sigmund Freuden ikaslea, operako palko batean egiten dute topo kasualitatez, Balzacen obra baten antzezpenean. Emakume edo gizon izate hutsetik bizitza osoa bizitzeko zailtasunari buruzko elkarrizketan zehar, gizarte-oihaletatik askatzen joan eta sekreturik intimoenak azaleratuko dituzte, komikotasun handiko uneak sortuz.

Virginia Woolf, autora reconocida del modernismo vanguardista del siglo XX, y Carl Gustav Jung, psiquiatra suizo, discípulo de Sigmund Freud, se encuentran casualmente en un palco de la ópera. Ambos asisten a la representación de una obra de Balzac. A lo largo de la conversación que entablan sobre la dificultad de vivir una vida íntegra desde la sola condición de mujer o de hombre, irán desprendiéndose de los velos sociales y dejarán aflorar sus más íntimos secretos, provocando momentos de mucha comicidad.





# ERREZITALDIA
RECITAL



***Gonbidapenarekin*** */ Con invitación*

***Gonbidapenak egunean bertan jaso ahal izango dira 11:30etik aurrera, www.donostiakultura.eus-en, Victoria Eugenia Antzokiko leihatilan eta kultur etxeetan (Loiolan salbu). 2 gonbidapen gehienez pertsona bakoitzeko.***

*Las invitaciones se podrán retirar el día del evento a partir de las 11:30 en www.donostiakultura.eus, en la taquilla del Teatro Victoria Eugenia y en las casas de cultura (excepto en Loiola). Máximo 2 invitaciones por persona.*

**17**

## *Antonio Machado 150*

***Ángel Marco***

VEA CLUB
**19:00 CAS**

Aurten, 150 bete dira Antonio Machado poeta jaio zela. Baina nork ezagutzen du sakon bere obra? Ángel Marco eskarmentu handiko aktore eta irrati-esatariaren ahotsean, erbestean hil zen poeta honen lanaren zentzu eta soinu onena dastatzeko aukera.

Este año se cumplen 150 años del nacimiento de  Antonio Machado, poeta cuyo nombre no es necesario recordar. ¿Pero quién conoce su obra en profundidad? En la voz del experimentado actor y locutor Ángel Marco, el sentido y el sonido de lo mejor de este poeta que murió en el exilio.

# IRAKURRALDI MUSIKATUA
# LECTURA MUSICALIZADA



*Gonbidapenarekin* / *Con invitación*

***Gonbidapenak egunean bertan jaso ahal izango dira 11:30etik aurrera, www.donostiakultura.eus-en, Victoria Eugenia Antzokiko leihatilan eta kultur etxeetan (Loiolan salbu). 2 gonbidapen gehienez pertsona bakoitzeko.***

*Las invitaciones se podrán retirar el día del evento a partir de las 11:30 en www.donostiakultura.eus, en la taquilla del Teatro Victoria Eugenia y en las casas de cultura (excepto en Loiola). Máximo 2 invitaciones por persona.*

**18**

## *Bihar, atzo, gaur, bihar*

***Iban Zaldua + Ibil Bedi***

VEA CLUB
**19:00 EU**

*Bihar, atzo, gaur, bihar* irakurraldi musikatu bat da, zeinetan Ibil Bedi taldeak bere musikarekin lagunduko baitio Iban Zalduak sortutako ipuin bati. Kontakizun horretan, Ibil Bediren musikan bezala alegia, Euskal Herriaren iraganaren, egungo egoeraren eta etorkizuneko auzi jakin batzuk nahasten dira, kondairatik, entsegutik, (des)amodio istorioetatik eta zientzia-fikziotik edaten duten ildo narratiboetatik tiraka harilkatuko direnak.

